

AURPEGIRIK GABEKO
HILZAILAK

HENNING MANKELL



erein

AURPEGIRIK GABEKO
HILTZAILEAK

3

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Liburu honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Jatorrizko izenburua:

Mördare utan ansikte

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© by Henning Mankell 1991

Published by agreement with Leopard Förlag AB,
Stockholm and Leonhardt & Høier Literary Agency A/S,
Copenhagen

© Itzulpenarena:

Juan Mari Mendizabal

© EREIN. Donostia 2009

ISBN: 978-84-9746-547-2

L. G.: SS-1480/09

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

AURPEGIRIK GABEKO
HILTZAILEAK
HENNING MANKELL

Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal

erein

erein argitaletxea

1



Zerbait ahaztu du, segurtasun osoz jakin du esnatu de-
nean. Gauean amestutako zerbait. Gogoratu beharko
lukeen zerbait.

Gogoratzen saiatu da. Baina loa zulo beltz bat bezala
da. Bere edukiaz ezer esaten ez duen zulo bat.

«Behintzat ez diat zezenekin amets egin», pentsatu
du. «Hala balitz izerditan egongo nindukean, gauez su-
karra izan banu bezala. Gaurkoan zezenek bakea eman zi-
datek».

Geldirik geratu da ilunpean, entzuten. Emaztearen
arnasa apal-apal sentitu du ondoan, ia sumaezina.

«Goizen batean ondoan hilik geratuko duk eta ez
nauk konturatuko», pentsatu du. «Bera ez bada, ni. Gu-
tako bat bestea baino lehenago hilko duk. Edozein egun-
sentitan gutako bat bakarrik geratuko duk».

Gau-mahai gaineko erlojura begiratu du. Gezi dis-
tiratsuek bostak laurden gutxi markatzen dute.

«Zergatik esnatu ote naiz?», pentsatu du. «Bost eta erdiak arte egiten diat lo beti. Berrogei urte baino gehiagotan egin diat. Zergatik esnatu naiz orain?».

Iluntasunean entzuten egon da, eta bat-batean erabat esna dagoela jabetu da.

Zerbait aldatu da. Zerbait ez da ohi bezala.

Arretaz, haztamuka bilatu du emaztearen aurpegia. Hatz muturrez nabaritu du haren beroa. Emaztea ez da hil, bederen. Oraindik ez da bietako bat bakarrik geratu.

Iluntasunean entzuten geratu da.

«Zaldia», pentsatu du. «Ez dik irrintzirik egin. Horregatik esnatu nauk. Irrintzi egin ohi dik gauez. Esnatu gabe aditzen diat eta ia oharkabean jakiten diat lo egiten jarrai dezakedala».

Arretaz jaiki da ohe kirrinkaritik. Berrogei urtetan izan dute ohea. Ezkondu zirenean erosi zuten altzari bakarra da. Eta bizitza osoan izango duten ohe bakarra.

Leihora hurbiltzean mina sentitu du ezkerreko belauanean.

«Zaharra nagok», pentsatu du. «Zaharra eta ahitua. Goizero-goizero esnatzen naizenean harrituta geratzen nauk jada hirurogeita hamar urte ditudala pentsatzean».

Negu gauari so geratu da. 1990eko urtarrilaren 8a da eta oraindik ez du elurrik bota Eskanian. Sukaldeko atearen gaineko lanpa distira zabaltzen ari da lorategian, gaztainondo biluzian eta urrutiko zelaietan. Begiak bilduta begiratu du auzokoen landetxera, Lövgren-darreneira. Etxe

zuri baxu luzea ilunpetan dago. Etxebizitzarekiko perpendikular dagoen ukuiluko ate beltzaren gainean lanpa batek argi horizta ematen du. Bertan dago behorra bere txokoan, eta hortxe egiten du irrintzi gauetz, urduri.

Agurea adi entzuten geratu da iluntasunean.

Atzean oheak kirrinka egin du.

–Zertan ari zara? –marmar egin dio emazteak.

–Segi lotan –erantzun du berak–. Zangoak luzatzen ari naiz.

–Mina al duzu?

–Ez.

–Zatoz, ba, ohera! Hoztu egingo zara bestela.

Emaztea ohean biratzen aditu du.

«Behin batean elkar maite izan genian», pentsatu du.

Baina uxatu egin du gogoeta. «Hitz politegia duk. Maite. Ez duk gu bezalakoentzat. Berrogei urtetik gora nekazari izaten eta Eskaniako lokatz astunaren gainean makurtuta ibiltzen eman dituen batek ez du maite hitza erabiltzen emazteaz ari denean. Gure bizitzan maitasuna guztiz bestelako zerbaite izan duk beti...».

Auzoen etxea begietsi du, begiak bilduta, neguko gauaren iluntasuna zeharkatu nahian.

«Egin irrintzi», pentsatu du. «Egin irrintzi hire txokoan, dena beti bezala dagoela jakin dezadan. Hartara, es-talki azpian beste pixka batean geratu ahal izango nauk. Erreumak jotako nekazari jubilatu baten eguna nahikoa luze eta aspergarria duk bestela ere».

Bat-batean auzoen sukaldeko leihoari begira geratu dela konturatu da. Zerbait aldatuta dago. Urte luzeetan begirada luzatu ohi du noizean behin auzoaren leiho-rantz. Orain bat-batean zerbait aldatu dela dirudi. Edo iluntasunak nahasi ote du? Betazalak itxi eta hogeira zenbatu du begiari atsedean emateko. Gero ostera begiratu du leihora, eta seguru dago zabalik dagoela. Gauzez beti itxita egon izan den leihoa zabalik dago bat-batean. Eta behorrek ez du irrintzi egin...

Behorrek ez du irrintzi egin Lövgren zaharrak egin ez duelako ohiko gau-paseoa ukuilura, prostatak ohe berotik altzarazi duenean...

«Hire irudipenak dituk», esan dio bere buruari. «Begiak lausotuta dauzkak. Dena beti bezala zegok. Zer gertatu behar zuen hemen? Lenarp herrixkan, Kadesjö-tik iparraldera, Krageholm aintzira ederrera bidean, Eskaniako bihotzean? Hemen ez duk sekula ezer gertatzen. Denbora geldirik zegok herrixka honetan, hemen bizitzak aurrera egiten dik energiarik zein borondaterik ez duen erreka baten modura. Nekazari zaharrak bizi dituk hemen, lurra beste saldu edo alokatu dizkietenak. Hemen bizi gaituk, ezin saihestuzkoaren zain...».

Sukaldeko leihora begiratu du berriz; ez Maria ez Johannes Lövgren ez lirateke hura ixteaz ahaztuko. Adinarekin batera beldurra sartzen da gorputzean, gero eta sarraila gehiago ipintzen dira eta inori ez zaio ahazten leiho bat ixtea gaua egin baino lehen. Zahartzean ikara area-

gotu egiten da. Haurtzaroan gauza goibelei izandako beldurra itzuli egiten da zahartzen zarenean...

«Jantzi eta kanpora irten nintekék», pentsatu du. «Lorategia herrenka zeharkatu, negu haizea aurpegian, gure lurrak bereizten dituen hesiraino. Neure begiez ikus zezakeat irudipenak ari naizela ikusten».

Baina ez irtetea erabaki du. Johannes laster altxatuko da kafea prestatzera. Bainugelako argia piztuko du aurrena, gero sukaldekoa. Dena izango da beti bezala...

Leiho ondoan zutik, hotzak dagoela konturatu da. Zahartzaroko hotza hurbiltzen ari zaio, gela beroenean ere. Mariaz eta Johannesez pentsatu du. «Haiekin ere ezkonbizitza bizi izan diagu», pentsatu du, «auzo eta nekazari gisa. Elkarri lagundu izan zioagu, banatu egin di-tiagu nekeak eta urte txarrak. Baina bizitza ona ere banatu egin diagu. Elkarrekin ospatu izan diagu laurok San Joan gaua, eta Eguberrian bazkaldu. Gure haurrak bi etxeen artean hazi dituk, bietakoak balira bezala. Eta orain zahart-zaro amaiezina banatzen diagu...».

Zergatia jakin gabe, leihoa ireki du kontuz, lo dagoen Hanna ez esnatzeko. Tinko eutsi dio leihoaren gakoari, haize izoztuak eskutik erauzi ez diezaion. Baina ez dabil haizerik, eta gogoratu da irratiko eguraldi-albisteetan ez du-tela esan Eskaniako ordokira ekaitza hurbiltzen ari denik.

Zeru izartsua garbia dago eta hotz handia egiten du. Leihoa berriz ixtera doala, hots bat aditu duela iruditu zaio. Entzuten jarri da eta ezkerreko belarria kanpora biratu du.

Belarri ona du hori; eskuinekoa, berriz, betiko kaltetuta dauka traktore zaratatsuetan emandako denboragatik.

«Txori bat», pentsatu du. «Gau-txori bat ari duk garrasika».

Gero ikaratu egin da. Izua ezerezetik irten eta gainezkatu egin du.

Gizaki baten oihuak ematen dute. Oihu etsiak dira, beste norbaitek aditu ditzan egindakoak.

Ahots horrek ongi daki harrizko horma lodiak zeharkatu behar dituela auzoenganaino iristeko...

«Hire irudipenak dituk», pentsatu du berriro. «Ez duk ari inor oihuka. Nor ariko da ba oihuka?».

Leiho a itxi du, halako indarrez, non lorontzi bat erori eta Hanna esnatu egin baita.

–Zertan ari zara? –esan du, eta haserre dagoela konturatu da senarra.

Erantzutera zihoala, bat-batean seguru egon da.

Izua benetakoa da.

–Behorak ez du irrintzi egin –esan du, eta ohe er-tzean eseri da–. Eta Lövgrendarren sukaldeko leihoa zabalik dago. Eta norbait oihuka ari da.

Emaztea agondu egin da ohean.

–Zer diozu?

Senarrak ez du erantzun nahi, baina orain seguru dago aditu duena ez dela txori bat.

–Johannes edo Maria da –esan du. Haietako bat ari da oihuka laguntza eske.

Emazteak ohetik altxatu eta leihora egin du. Hortxe dago, handi-zabal, ohe-atorra zuria soinean, kanpoko iluntasunari begira.

–Sukaldeko leihoa ez dago zabalik –xuxurlatu du–.
Hautsita dago.

Senarra hurbildu egin zaio, hotzak dardaraka.

–Nor bait ari da oihuka laguntza eske –esan du emazteak ahots ikaratuaz.

–Zer egingo dugu? –galdetu du senarrak.

–Zoaz hara. Korri!

–Ez al da arriskutsua izango?

–Ez al diegu lagundu behar gure lagun onenei zerbait gertatu zaienean?

Senarra bizkor jantzi da, linterna hartu du sukaldeko armairutik, fusibleen eta kafe-potoaren ondotik. Oinen azpian lurra izoztuta dago. Atzera begiratu eta une batez Hanna ikusi du leihotik so.

Hesira iristean gelditu egin da. Dena isilik dago. Orduan ikusi du sukaldeko leihoa txikituta dagoela. Hesi gainetik arretaz pasatu eta etxe zurira hurbildu da. Baina ez du oihurik aditu.

«Nire irudipenak dituk», pentsatu du berriro. «Gertatzen ari dena bereizteko gai ez den agure zahar bat nauk. Beharbada zezenekin ere amets egin diat gauean? Txikitant atzetik korrika ari zitzaizkidan zezenekiko amesgaizto zaharra, noizbait hil egin beharko nuela ulertarazi zidana...».

Orduan berriz aditu du oihua. Oihu itoa da, intziri baten antzekoa. Maria da.

Logelako leihora hurbildu eta arretaz begiratu du errezelaren zirrikitutik.

Kolpetik Johannes hilda dagoela jakin du. Barrura zuzendu du linterna, begiak indarrez itxita, bere burua begiratzera behartu duen arte.

Maria zoruan dago uzkurtuta, aulki bati lotuta. Odoleztatuta dauka aurpegia eta haren hortzordeak puskatuta daude gau-atorra orbanduaren altzoan.

Gero Johannesen oin bat ikusi du. Oina besterik ez du ikusi. Gorputzaren gainerakoa errezelak ezkututzen dio.

Herrenka itzuli eta berriro pasatu da hesi gainetik. Belaunak min eman dio estropezu egin duenean, etsita, lokatz izoztuarekin.

Poliziarari deitu dio aurrena.

Gero palanka bat atera du naftalina usaina duen armairu batetik.

–Geratu hemen –esan dio Hannari–. Horko hori ez duzu zertan ikusirik.

–Zer gertatu da? –galdetu dio emazteak, begi izutuak malkotan.

–Ez dakit –erantzun dio hark–. Baina esnatu egin naiz behorrak irrintzi egiten ez zuelako. Hori da seguru dakidana.

1990eko urtarrilaren 8a da.

Oraindik ez du argitu.

2



Telefono deia 5:13etan erregistratu zen Ystadeko polizia etxean. Gabon Zaharrez geroztik ia etengabe zerbitzuan jardun zuen poliziakide abaildu batek hartu zuen deia. Beste muturreko hitz totelduak entzun ondoren agure buru-arinduren bat izango zela pentsatu zuen. Baina gauza batek atentziora eman zion. Galderak egiten hasi zitzaion. Elkarrizketa amaitu zenean une labur batez pentsatzen geratu zen entzungailua berriro altxatu eta buruz zekien zenbaki bat osatu baino lehen.

Kurt Wallander lo zegoen. Bezperan berandu arte geratu zen lagun batek Bulgariatik bidalitako Maria Callasen disko bat entzuten. Behin eta berriz itzuli zen haren *Traviatara*, eta azkenik oheratu zenerako goizeko ordu biak ziren. Telefonoak lo sakonetik atera zuenean amets izugarri erotiko baten erdian zegoen. Dena ametsa izan zela segurtatzeko bezala, besoa luzatu zuen edredoiaren gainetik. Bakarrik zegoen, ordea. Ez zegoen haren emaztea,

hiru hilabete lehenago utzi zuena, ezta justu lehenago ametsetan txorta saio bortitzean ari zitzaion emakume beltza ere.

Erlojuari begiratu zion telefonoa hartzeko luzatzen zen bitartean. «Auto istripuren bat», pentsatu zuen segituan. «Errepidea izoztuta, eta azkarregi zihoan norbaitek irrist egin dik E-14an. Edo bestela saltsaren bat Polonia-tik goizeko ferryan iritsitako etorkinekin».

Ohean agondu eta bizarrak zakartutako masailaren aurka sakatu zuen entzungailua.

–Wallander, esan...?

–Ez zintudan esnatuko, gero?

–Ez, gizona. Esna nagok.

«Zergatik esan dut gezurra?», pentsatu zuen. «Zergatik ez dut egia esan? Gehien nahi dudana lotara itzultzea dela, emakume biluzi bat dagoen amets galdu batera?».

–Deitu egin behar nizula iruditu zait.

–Auto istripua?

–Ez zehazki. Agure nekazari batek deitu du, Nyström zuela izena eta Lenarpen bizi zela. Auzokoaren emaztea lurrian lotuta dagoela esan du, eta norbait hilda dagoela.

Wallander ziztuan hasi zen pentsatzen non zegoen Lenarp herria. Marsvinsholm-etik ez oso urruti, Eskania izateko gune malkartsu samar batean.

–Gauza serioa iruditu zait. Pentsatu dut onena zuri zuzenean deitzea izango zela.

–Zenbat dituk polizia etxean orain bertan?

–Peters eta Norén kanpoan daude, Continentaleko leiho bat txikitu duten batzuen atzetik. Deituko al diet?

–Esaiek Kadesjö eta Katslösa arteko gurutzera joateko eta bertan itxaroteko ni iritsi arte. Emaiek helbidea. Zer ordutan deitu dute?

–Duela minutu batzuk.

–Seguru deitu duena ez zegoela mozkortuta?

–Ez zuen ematen.

–Hara. Tira ba.

Azkar jantzi zen dutxatu gabe, termoan geratzen zen kafe epela kikanan zerbitzatu eta leihotik begiratu zuen. Mariagatan kalean bizi zen, Ystadeko erdialdean, eta bere leihotik ikusten zen fatxada grisa eta arrakalatu zen. Bere buruari galdetu zion negu hartan Eskanian elurrik botako ote zuen. Ezetx espero zuen. Eskaniako elur ekaitzekin batera beti izaten ziren lan karga handikoaldiak. Auto istripuak, erditzeko zorian zeuden emakume elurrak blokatutakoak, atso-agure bakartuak eta elektrizitate kable eroriak. Elur ekaitzekin batera kaosa etortzen zen, eta negu hartan haiei aurre egiteko kaskar prestatuta ikusten zuen bere burua. Emazteak utzi izanak sortutako nahigabeak barrenak erretzen zizkion oraindik.

Regementsgatan barrena gidatu zuen Österledeneko autobia sarrerara iritsi arte. Dragongatanen semaforoa gorria zegoen eta autoko irratia piztu zuen berriak

entzuteko. Ahots hunkitu bat kontinente urrun batean eroritako hegazkin baten berri ari zen ematen.

Denbora bat dago bizitzeko eta beste bat hilda egoteko, pentsatu zuen begietako loa igurtziaren igurtziaz uxatzen zuen bitartean. Urte asko lehenago asmatutako konjuru bat zen. Garai hartan poliziakide gazte bat zen, Malmö jaiotiriko kaleetan barrena patruilan ibiltzen. Behin batean Pildamm parketik bota nahi zuten gizon mozkor bategen harakin aiztotzar batez eraso zion. Ebaki sakona egin zion bihotzetik hurbil. Milimetro batzuegatik salbatu zen ezusteko heriotza batetik. Hogeita hiru urte zituen eta bat-batean ikasi zuen poliziakide izateak zituen arriskuen berri. Oroipen hartatik bere burua babesteko modua zuen konjuru.

Atzean utzi zuen hiria, autobia sarreraren alboan zegoen altzari biltegi eraiki berriaren ondotik pasatu eta itsasoa begiztatu zuen urrunean. Grisa zegoen, baina harrigarriro lasai eskaniar neguaren minean egoteko. Urrutian, ostertzean, ekialderantz zihoan ontzi bat bereizten zen.

«Neguko ekaitzak bazatozak», pentsatu zuen.

«Lehenago edo geroago gainean izango ditiagu».

Autoko irratia itzali eta aurkituko zuenaz pentsatzen saiatu zen.

Zer zekien berak, funtsean?

Emakume zahar bat lurrean, lotuta? Leiho batetik ikusi zuela zioen gizon bat? Bjäresö-ko irteera pasatu

ondoren azeleragailua zapaldu eta pentsatu zuen deitu zuen agureak seguruenik bat-bateko zahartzaroko demenziak jota egongo zela. Polizia ibilitako urte ugarietan behin baino gehiagotan iruditu zitzaion jende zahar bakartuarentzat poliziari deitzea laguntza eske oihu egitea bezala zela.

Polizia-autoa zain zeukan Kadesjöko irteeraren alboan. Peters kanpoan zegoen, landetan saltoka zebilen erbi bati begira.

Wallander bere Peugeot urdinean hurbiltzen ikusi zuenean eskuaz diosala egin eta bolantearen atzean eseritzen zen.

Hartxintzar izoztuek kirrinka egiten zuten auto gurrupilen azpian. Kurt Wallander polizia-autoaren atzean zihoan. Trunnerup-eko irteera utzi, aldapa batzuetan gora jarraitu eta Lenarpera iritsi ziren. Traktore bat ozta-ozta pasa zitekeen landa bide mehar batetik sartu ziren. Handik kilometro batera iritsiak ziren. Bi landetxe aurrez aurre, bi eraikin luze zuri ongi zaindutako lorategiekin.

Agure zahar bat hurbildu zitzaien azkar. Herrenka zebilela erreparatu zion Kurt Wallanderrek, belaunean mina balu bezala.

Autotik irteteen haize zakarra zebilela konturatu zen. Agian elurra bota behar zuen oraindik?

Agurea ikusi bezain laster jakin zuen gauza oso desatsegin bat ikusiko zuela. Gizonaren begietan zegoen izudistira ezin zitekeen irudikeria izan.

–Atea bortxatu dut –zioen behin eta berriz, urduri–. Atea bortxatu dut ikusi behar nuelako. Emaztea ere hiltzorian dago, bera ere bai.

Ate puskatutik sartu ziren. Kurt Wallanderrek agure usain garratza sentitu zuen. Paper pintatua zaharkituta zegoen, eta begirada zorroztu behar izan zuen iluntasunean ikusteko.

–Zer gertatu da? –galdetu zuen.

–Hor barruan –erantzun zuen agureak.

Gero negarrari eman zitzaion.

Hiru poliziek elkarri begiratu zioten.

Kurt Wallanderrek oin batez bultzatu zuen atea.

Irudikatu baino okerragoa zen. Askoz okerragoa. Gerora esango zuen inoiz ikusi zuen gauza izugarriena zela. Eta asko ikusia zen.

Bikote zaharraren logela guztiz odoleztatuta zegoen. Sabaik zintzilik zegoen portzelanazko lanparaino iristen ziren zipriztinak. Ohe gainean gizon zahar bat zetzan, soina biluzi eta galtzontzilo luzeak jaitsita. Aurpegia txiki-txiki eginda zeukan, ezagutezina. Bazirudien norbait aizto batekin sudurra erauzten saiatu zela. Eskuak atzean lotuta zeuzkan eta ezker izterrezurra txikituta zeukan. Hezurraren zuritasuna nabarmendu egiten zen hainbeste gorriren artean.

–Ostia –aditu zuen Norén intziri egiten bere atzean, eta berak ere goragalea sentitu zuen.

–Anbulantzia bat –esan zuen Wallanderrek listua irentsiz–. Azkar, azkar...

Gero lurrean erdi eserita eta aulki bati lotuta zegoen emakumearen gainean makurtu ziren. Lotu zuenak listariatz inguratu zion lepo argala. Arnas-hustuta zegoen, eta Kurt Wallanderrek aizto baten bila joateko oihukatu zion Petersi. Eskumuturretan eta lepoan ildo sakonak utzitako sokak moztu eta poliki etzan zuten emakumea zoruan. Kurt Wallanderrek altzoan hartu zuen haren burua.

Petersi begiratu eta konturatu zen gauza bera ari zirela pentsatzen.

Nor izan zitekeen hura egiteko bezain zitala? Atso babesgabe bati lepoan urka-bilurra lotzeko?

–Itxaron kanpoan –esan zion Kurt Wallanderrek atean negarrez zegoen agureari–. Egon hor kanpoan eta ez ezer ukitu.

Bere ahotsa orroa iruditu zitzaion.

«Ikaratuta nagoelako egin diat orro», pentsatu zuen. «Zer mundu klasean bizi gara?».

Ia hogeita minutu joan ziren anbulantzia iritsi arte. Emakumearen arnasa irregularragoa egin zen eta Kurt Wallander beldur zen ez ote zen beranduegi iritsiko.

Anbulantziako gidaria ezagutu zuen, Antonson izeneko bat.

Haren laguntzailea inoiz ikusi ez zuen gizon gazte bat zen.

–Kaixo –esan zuen Wallanderrek–. Gizona hilik zegoen. Baina emakumea bizirik zegoen. Ea salba dezakezen.

–Zer gertatu da? –galdetu zuen Antonsonek.

–Horri berak erantzutea espero diat, bizirik irteten bada. Tira, korri!

Anbulantzia hartxintzarrezko bidean barrena desagertu zenean, Kurt Wallander eta Peters kanpora irten ziren. Norén mukizapi batez aurpegia lehortzen ari zen. Egunsentia hurbiltzen ari zen astiro. Kurt Wallanderrek eskumuturreko erlojuari begiratu zion. Bi minutu falta ziren zazpi eta erdiak izateko.

–Hiltegia dirudi horrek –esan zuen Petersek.

–Are okerrago –esan zuen Wallanderrek–. Deitu polizia etxera eta libre dauden guztiak etor daitezela. Esan Noréni hesiak jartzeko. Bien bitartean agurearekin hitz egingo diat.

Hitzok esaten ari zela garrasi bat zirudien zerbait aditu zuen. Kurt Wallander ikara batek hartu zuen, eta garrasia berriz aditu zen.

Zaldi bat zen, irrintzika.

Ukuilura inguratu eta atea zabaldu zuten. Iluntasunean zaldi bat ikusi zuten bere txokoan lurra zapaltzen, urduri. Gorotz epelaren eta pixaren usaina zegoen.

–Emaiozue ura eta lastoa –esan zuen Kurt Wallanderrek–. Beharbada abere gehiago daude.

Ukuilutik irtetean izu-ikara bat izan zuen. Hegazti beltz batzuk zelai urrun bateko zuhaitz bakartian zeuden pausatuta, karranka. Aire hotza arnastu eta haizea bizia-gotu zela konturatu zen.

–Nyström duzu izena –esan zion ordurako negarri amaiara emana zion gizonari–. Zer gertatu den kontatu behar didazu. Oker ez banago aurreko landetxean bizi zara.

Gizonak baiezko mutua egin zuen.

–Zer gertatu da? –galdetu zuen ahots dardaratiz.

–Hori zuk esatea espero dut –esan zuen Kurt Wallanderrek–. Zure etxera joan gaitzke?

Sukaldean txabusina soinean zeraman emakume abaildu bat zegoen aulki batean eserita, negarrez. Baina Kurt Wallanderrek bere burua aurkeztu bezain laster altxatu eta kafea egiteari ekin zion. Sukaldeko mahai inguruan eseri ziren. Wallanderrek ikusi zuen eguberrietako apaindura batzuk geratzen zirela leihotik zintzilik. Katu zahar bat ere bazegoen, etengabe berari so. Eskua luzatu zuen laztantzeko.

–Kosk egiten du –esan zuen Nyströmek–. Ez dago jendearekin ohituta. Hanna eta biokin bakarrik.

Kurt Wallander utzi berria zuen emazteaz gogoratu zen, eta nondik hasi behar zuen galdetu zion bere buruari. «Hilketa basatia», pentsatu zuen. «Eta zorigaiztoa lagun badugu hilketa bikoitza izango diagu».

Kolpetik zerbait bururatu zitzaion. Leihoaren kristalean kolpetxo batzuk jo zituen Norénen arreta erakartzeko.

–Barkatu pixka batean –esan eta altxatu egin zen.

–Zaldiak ura eta lastoa zeukan –esan zuen Norének–. Ez zegoen beste abererik.

–Joan dadila norbait ospitalera –esan zuen Kurt Wallanderrek–. Ea deskuiduan emakumeak esnatu eta zerbait esaten duen. Dena ikusi behar izan dik.

Norének baiezkoa egin zuen.

–Bilatu belarri zorrotzeko norbait –esan zuen Kurt Wallanderrek–. Ahal dela ezpain mugimenduak irakurtzen dakien norbait.

Sukaldera itzuli zenean berokia erantzi eta sukaldeko aulki luzean utzi zuen.

–Kontatu –esan zuen–. Kontatu lasai ezer ahaztu gabe. Hartu behar duzuen denbora.

Bi kikara kafe mehe geroago konturatu zen ez Nyströmek ez haren emazteak ez zutela garrantzizko ezer kontatzeko. Ordu batzuk berretsi zizkioten, baita erasotutako bikote zaharraren bizitzaren historia kontatu ere.

Bi galdera geratzen zitzaizkion.

–Ba al dakizue etxean diru kopuru handia gordetzen ote zuten? –galdetu zien.

–Ez –esan zuen Nyströmek–. Bankuan zeukaten dena. Baita erretreta ere. Eta ez ziren aberatsak. Lurra, abereak eta makinak saldu zituztenean, dirua seme-alabei eman zieten.

Bigarren galdera zentzurik gabea iruditzen zitzaion. Baina hala ere egin egin zuen. Egoera hartan ez zeukan beste aukerarik.

–Etsairik ba al zuten?

–Etsaiak?

–Halako gauza bat egin zezaketenak.
Galdera ulertu ez zutela ematen zuen.
Berriro galdetu zuen.

Bi zaharrek harrিতuta begiratu zioten.

–Gu bezalako jendeak ez du etsairik –erantzun zuen gizonak. Wallander konturatu zen minduta zirudiela–. Batzuetan liskartu egiten gara bidearen mantenimendua edo lur batzuen mugak direla eta. Baina ez dugu elkar hiltzen.

Wallanderrek baiezko keinua egin zuen buruaz.

–Laster jakingo duzue nire berri –esan eta zutitu egin zen, berokia eskuan zuela–. Bat-batean beste zerbaitetaz gogoratzen bazarete ez zalantzarik izan eta poliziari deitu. Nitaz galdetu, Kurt Wallander.

–Eta itzultzen badira...? –galdetu zuen emakume zaharrak.

Kurt Wallanderrek burua astindu zuen.

–Ez dira itzuliko –esan zuen–. Seguru asko lapurrak izango ziren. Ez dira itzuliko. Ez duzue zertan kezkatu-rik.

Haiek lasaitzeko beste zerbait esan beharko lukeela pentsatu zuen. Zer esan, ordea? Zer segurtasun eskaini zezakiekeen beren auzo hurbilenaren hilketa basati hura bizi zuten eta oraindik beste pertsona bat hiltzeko zain ego-
tea besterik geratzen ez zitzaaien pertsona haiei?

–Behorra –esan zuen–. Nork emango dio bazka?

–Guk emango diogu –erantzun zuen agureak–. Be-
har duena emango diogu.

Wallander egunsenti hotzera irten zen. Haize gehiago zebilen eta uzkurto egin zen autorantz joatean. Egia esan, bertan geratu beharko zuen, poliziako teknikariei laguntzeko. Baina hotzak zegoen, ez zen ongi sentitzen eta ez zuen han beharrezkoa baino gehiago geratu nahi. Gainera, ikusi zuen polizia-autoarekin etorritakoa Rydberg zela. Horrek esan nahi zuen teknikariek ez zutela lana bukatuko krimenaren lekuko lur mokor guzti-guztiak altxatu eta aztertu arte. Rydberg urte gutxi barru jubilatuko zen, eta poliziakide kartsua zen. Batzuetan zorrotzegia eta patxadatsua ematen bazuen ere, krimenaren lekuaren azterketa taxuz egingo zela berma zezakeen.

Rydbergerek erreuma zuen eta makila erabiltzen zuen. Herrenka hurbiltzen ari zitzaion kanpoko patioan.

–Ez duk oso atsegina –esan zuen–. Hiltegia ematen dik barruko horrek.

–Ez haiz hori esan duen lehena –esan zion Kurt Wallanderrek.

Rydbergerek aurpegi serioa zuen.

–Ba al dugu aztarnarik?

Kurt Wallanderrek aldez alde mugitu zuen burua.

–Bat ere ez? –Rydbergen ahotsak erregu doinua zuen.

–Auzoek ez ditek ezer ikusi ez aditu. Kriminal arruntak direlakoan nagok.

–Arrunta iruditzen al zaik horko basakeria zentzugabe hori?

Rydberg asaldatuta zegoen, eta Kurt Wallander bere hitzez damutu zen.

–Esan nahi dudana duk pertsona bereziki basatiak aritu direla hemen jardunean. Baserri isolatueta bizi diren agure-atso bakartiei erasotzen bizimodua ateratzen duen jende klasea.

–Harrapatu egin behar ditiagu –esan zuen Rydbergek–. Berriro kolpa dezaten baino lehen.

–Bai –esan zuen Kurt Wallanderrek–. Aurten beste batzuk harrapatzen ez baditugu ere, hauek harrapatu egin behar ditiagu.

Autora sartu eta lekutu egin zen. Bide meharreko bihurtune batean talka egiteko zorian egon zen kontrako norabidean ziztu bizian zetorren auto batekin. Gidaria ezagutu zuen. Suediako egunkari handietako batean lan egiten zuen kazetari bat zen, beti agertzen zena Ystad inguruan garrantzizko zerbaite gertatzen zenean.

Wallanderrek zenbait aldiz zeharkatu zuen Lenarp mutur batetik besteraino. Argia ikusten zen leihoetan, baina kalean ez zebilen inor.

–Zer pentsatuko ote dute berria zabaltzen denean? –galdetu zuen bere kolkorako.

Adorerik gabe sentitzen zen. Emakume zaharraren irudiak, lepoa listariz inguratua, ez zuen bakean uzten. Ankerkeria ulertezina zen. Nork egin lezake halakorik? Zergatik ez emakumeari buruan aizkorakada bat jo eta berehalakoan bukatu? Zergatik tortura hura?

Buruan ikerketa lana diseinatzen ahalegindu zen, herrixka astiro zeharkatzen zuen bitartean. Blentarp-eko bidegurutzean autoa gelditu eta berogailua piztu zuen hotsak zegoelako, eta gero geldi-geldirik geratu zen oster-tzari begira.

Berak zuzenduko zuen ikerketa, hori bazekien. Ezin zitekeen beste inortaz pentsatu. Rydbergen ondoren bera zen Ystaden eskarmentu gehiena zuen poliziakidea, 42 urte besterik ez izan arren.

Ikerketaren parte handi bat errutina hutsa izango zen. Krimenaren lekua aztertzea, Lenarpen eta lapurren ihes-bidean bizi zen jendeari galderak egitea. Ikusi al zuen inork gauza susmagarririk? Ezohiko zerbait? Galderen burrunba zebilkion jada buruan.

Baina Kurt Wallanderrek bazekien esperientziagatik landetan gertatutako lapurretak gehienetan ez zirela argitzen.

Emakumea bizirik ateratzea zen bere itxaropen bakarra.

Hark dena ikusi zuen. Bazekien.

Hiltzen bazen, ordea, argitzen zaila izango zen hilketa bikoitza.

Urduri sentitzen zen.

Normalean asaldurak abiarazi egiten zuen haren energia eta erabakimena. Edozein polizia lanetarako behar-beharrezkoak baitziren biak, poliziakide trebea zela uste ohi zuen. Baina une hartan ziurtasunik gabe eta nekatuta sentitzen zen.

Lehen martxa sartzera behartu zuen bere burua. Au-toak metro batzuk egin zituen. Gero ostera gelditu zen.

Neguko goiz izoztu hartan bizi izandakoaz ordu arte konturatu ez balitz bezala zen.

Bikote zahar babesgabearen aurka erabilitako zen-tzugarberia eta ankerkeriak ikaratu egin zuen.

Sekula gertatu behar ez zuena jazo zen han.

Autoko leihotik kanpora begiratu zuen. Haizea txis-tuka ari zen autoaren ateetan.

«Tira, hasi egin behar diat», pentsatu zuen.

«Rydbergekin esan duena duk».

«Harrapatu egin behar ditiagu egileak».

Zuzenean Ystadeko ospitalera egin zuen, eta igogai-luz igo zen zainketa berezietako unitatera. Korridorean berehala ikusi zuen Martinson poliziakide-gai gaztea, aulki batean eserita ate baten aurrean.

Kurt Wallander haserre zegoela konturatu zen.

Nola liteke poliziakide gazte eskarmentugabea bes-terik ez izatea ospitalean zaintzaldia egiteko? Eta zergatik zegoen kanpoan eserita? Zergatik ez zegoen ohe ondoan, emakume gajoaren xuxurlarik txikiena idazteko prest?

–Kaixo –esan zuen Kurt Wallanderrek–. Nola doa dena?

–Konortea galduta dago –Martinsonen erantzun–. Medikuek ez dute itxaropen handirik.

–Zergatik hago hemen? Zergatik ez hago barruan?

–Esango omen didate ezer gertatuz gero.

Kurt Wallander Martinsonen ziurtasuna galtzen zuela konturatu zen.

«Maisu zahar ernegatu bat bezala ari nauk», pentsatu zuen.

Atea arretaz bultzatu eta barrura begiratu zuen. Zenbait makina xurga eta ponpa ari ziren heriotzaren gelaurrean. Hodiak hormetan gora kiribiltzen ziren zizare gardenen antzera. Wallanderrek atea ireki zuenean erizain bat diagrama bat aztertzen ari zen.

–Ezin zara sartu –esan zuen, zorrotz.

–Poliziakidea naiz –erantzun zuen Kurt Wallanderrek apalki–. Nola dagoen jakin nahi dut bakarrik.

–Kanpoan itzaroteko esan dizut –esan zuen erizainak.

Kurt Wallanderrek erantzun ahal izan baino lehen mediku bat sartu zen bizkor gelara. Medikua harrigarriro gaztea iruditu zitzaion.

–Ez dugu barruan jende arrotzik nahi –esan zuen mediku gazteak Wallander ikusi zuenean.

–Banoa. Nola zegoen jakin nahi nuen bakarrik. Wallander dut abizena eta poliziakidea naiz. Brigada kriminalekoa –esplikatu zuen, horrek ezer aldatuko ote zuen jakin gabe–. Honako hau egin duen edo duten pertsonak aurkitzeko ikerketa zuzentzen dut. Nola dago bera?

–Harrigarria da oraindik bizirik egotea –esan zuen medikuak, eta keinu egin zion berarekin ohera hurbil zedin–. Oraindik ez dakigu zer daukan hautsita edo hon-

datuta barruan. Bizirik iraungo duen jakin behar dugu aurrena. Baina trakea oso deformatuta dago. Norbaitek itoartzeko saioa egin balu bezala.

–Horixe gertatu da –esan zuen Kurt Wallanderrek maindire eta hodian artean erdi ikusten zen aurpegi argalari begira.

–Hilda egon beharko luke –esan zuen medikuak.

–Bizirik irtetea espero dut –esan zuen Kurt Wallanderrek–. Daukagun lekuko bakarra da.

–Gure gaixo guztiak bizirik irtetea espero izaten dugu –erantzun zion medikuak, lehor, eta lerro berdeak etengabe uhin-mugimenduan ari ziren pantaila bati begira jarri zen.

Medikuak ezin zuela ezer esan jakinarazi zionean Kurt Wallander gelatik irten zen. Emaidza ezin aurreikusizkoa zen. Maria Lövgren hil egin zitekeen kordea berreskuratu gabe. Inork ez zekien.

–Ba al dakik ezpainak irakurtzen? –galdetu zion Martinsoni.

–Ez –erantzun hark, harrituta.

–Lastima –esan eta alde egin zuen Wallanderrek.

Ospitaletik zuzenean gidatu zuen kolore arrekoko polizia etxera, hiriaren ekialdeko irteeran.

Bere mahai alboan eseri eta leihotik begiratu zuen, urrutira, ur biltegi gorri zaharrerantz.

«Beharbada garai honek beste polizia mota bat eskatzen dik», pentsatu zuen. «Urtarrileko goizalde batean

Suediako hegoaldeko herrixka batean izandako sarraski bat ikertzera joan behar dutenean zirrarak sentitzen ez duten poliziakideak? Nire larridura eta ziurtasunik eza jasaten ez dituzten poliziakideak?».

Telefonoaren txirrinak gogoetak eten zizkion.

«Ospitalea», pentsatu zuen azkar.

«Maria Lövgren hil egin dela esateko duk».

«Baina esnarazi al dute? Esan al du ezer?».

Jo eta jo ari zen telefonoari so geratu zen.

«Kaka zaharra», pentsatu zuen. «Kaka zaharra».

«Beste edozein gauza, baina hori ez».

Baina entzungailua altxatu zuenean bere alaba zen. Halako izu-ikarak hartu zuen, ia telefonoa lurrera bota baitzuen.

–Aita –esan zuen alabak, eta Kurt Wallanderrek txanponak erortzen aditu zituen.

–Epa –esan zuen–. Nondik ari zara deika?

«Ez dadila Limatik izan», pentsatu zuen. «Edo Katmandutik. Edo Kinshasatik».

–Ystaden nago.

Kurt Wallander poztu egin zen. Horrek esan nahi zuen alabarekin egon ahal izango zela.

–Zuri bisita egitera etorri naiz –esan zuen alabak–. Baina iritiz aldatu dut. Tren geltokian nago. Banoa. Bakarririk esan nahi nizun gutxienez bisita egitea pentsatzen nuela.

Gero deia eten egin zen eta Kurt Wallander entzungailua eskuan zuela geratu zen.

Eskuan gauza hil bat, gauza anputatu bat izatea bezala zen.

«Umemoko madarikatua», pentsatu zuen. «Zergatik egiten dit hau?».

Haren alaba Lindak hemeretzi urte zituen. Hamabost urte izan bitartean harreman onak zituzten. Beregana etortzen zen, ez amarengana, arazoak zituenean edo zerbait egin nahi bai, baina ausartzen ez zenean. Eraldatzen ikusi zuen, neskabila potolo bat zena edertasun probokatzaileko emakume gazte bat bihurtzen. Hamabost urte bete arte ez ziren agerian geratu barruan zeuzkan deabruak, halako batean paisaia zalantzakor enigmatiko batera eramango zutena.

Udaberriko egun batean, hamabost urte bete eta berehala, bat-batean, inori ezer esan gabe, bere buruaz beste egiten saiatu zen. Larunbat arratsalde batean gertatu zen. Kurt Wallander lorategi-aulki bat konpontzen ari zen, eta emaztea leihoak garbitzen. Mailua utzi eta etxera sartu zen, bat-bateko egonezin batek bultzatua. Bere ohean zetzan, eta eskumuturretan eta lepoan ebakiak egin zituen bizar xafra batez. Gero, dena pasatu zenean, medikuak Wallanderri esan zion alaba hil egingo zela iritsi zen unean iritsi ez baltz, eta lotura estuak egiteko odol hotza izan ez balu.

Ikara hura ez zuen inoiz gaingitu. Alabarekin zuen harremana hautsi egin zen. Neskak saihestu egiten zuen eta berak ez zuen ulertzen zerk eraman ote zuen alaba bere buruaz beste egitera. Eskola bukatu zuen, aldi bateko

lanak hartzen zituen eta bat-batean desagertu egiten zen bolada luzeetan. Emazteak bi aldiz presionatu zuen haren desagertzea zela-eta bilaketa agindua eman zezan. Lankideek oinazetan ikusi zuten ikerketaren helburua nor eta alaba izan zenean. Baina halako batean berriro bueltan zen, eta ezkutuan patrikak arakatuz eta pasaportean begiratzuz jakiten zuen alaba non ibili zen bidaiatzen.

«Putza», pentsatu zuen. «Zergatik ez zara gelditu? Zergatik aldatu duzu iritziz?».

Telefonoak berriro jo zuen, eta eskua entzungailura luzatu zuen.

–Aita naiz –esan zuen, pentsatu gabe.

–Zer esan nahi duk horrekin? –esan zuen bere aitak–. Zer esan nahi duk «aita naiz» horrekin? Poliziakidea hirtzela uste nian.

–Orain ez dut astirik zurekin hitz egiteko. Gero deituko dizut.

–Ez didak gero deituko. Zer da hain garrantzitsua?

–Gauza larri bat gertatu da goizaldean. Gero deituko dizut.

–Zer gertatu da?

Bere aita zaharrak ia egunero deitzen zion telefonoz. Behin baino gehiagotan esan zion telefonistari haren deirik ez pasatzeko. Baina aita mainaz jabetu eta izen desberdinak erabiltzen eta ahotsa aldatzen hasi zen telefonistak engainatzeko.

Aukera bakarra ikusi zuen hari ihes egiteko.

–Arratsean bisita egingo dizut –esan zuen–. Orduan hitz egingo dugu.

Aitak konbentzitzen utzi zion gogo handirik gabe.

–Hator zazpitan. Orduan izango diat hirekin egoteko astia.

–Zazpitan joango naiz. Gero arte.

Entzungailua eskegi eta komunikazioa eten zuen deirik ez hartzeko.

Ziztuan pentsatu zuen autoa hartu eta geltokira joatea alabaren bila. Harekin hitz egitea, halako modu enigmatikoan galdutako harremana berpizten saiatzea. Baina bazekien ez zuela egingo. Ez zuen alabak betiko alde egin ziezaion arriskatu nahi.

Atea zabaldu zen eta Näslund-ek burua sartu zuen.

–Kaixo –esan zuen–. Pasaraziko al dut?

–Nor pasarazi?

Näslundek eskumuturreko erlojuari begiratu zion.

–Bederatziak dira –esan zuen–. Atzo esan zenuen ordu honetan galdekatu nahi zenuela Klas Månson.

–Zein Klas Månson?

Näslundek harrituta begiratu zion.

–Österleden-eko dendan lapurreta egin zuena. Har-taz ahaztuta al zeunden?

Orduan gogoratu zen, eta aldi berean jabetu Näslundek ez zekiela gauean gertatutako hilketaren berri.

–Ardura hadi hi Månson ez –esan zuen–. Hilketabat izan diagu gauean Lenarp aldean. Beharbada hilketak

bikoitza. Bikote zahar bat. Ardura hadi hi Månsonez. Baina utzi gerorako. Lenarpekoaren ikerketa antolatu behar diagu aurrena.

–Månsonen abokatua hemen da –esan zuen Näs-lundek–. Etxera bidaltzen badut goxo jarriko da.

–Atariko galdeketa egiok –esan zuen Kurt Wallanderrek–. Gero abokatua bazterrak nahasten hasten bada ezingo diagu ezer egin. Deitu ikerketa-bilera bat hamarretan nire bulegoan. Denak etor daitezela.

Bat-batean abian zen. Berriro poliziakidea zen. Alabaz eta emazteaz sentitzen zuen larridurak itxaron egin beharko zuen. Hiltzaile baten bilaketa neketsuari ekin behar zion lehenik.

Paper mordo bat zakarrontzira bota, inoiz beteko ez zuen kiniela bat apurtu, otorduak egiteko gelara sartu eta kafe kikara bat zerbitzatu zuen.

Hamarretan denak zeuden bere bulegora bilduta. Rydberg krimenaren lekutik etorria zen eta leiho alboan zegoen, zurezko aulki batean eserita. Poliziakideek, zazpiren bat guztira, zutik eta eserita, bulegoa betetzen zuten. Wallanderrek ospitalera deitu zuen, eta emakume zaharrak egoera kritikoan jarraitzen zuela jakinarazi zioten.

Gero gertatutakoa azaltzeari ekin zion.

–Irudika zenezaketen baino okerragoa zen hura –esan zuen–. Ez al da hala, Rydberg?

–Bai, horixe –erantzun zuen Rydberge–. Film amerikar batean bezala. Odol usaina eta guzti zegoen. Ez da ohikoa.

–Egileak harrapatu egin behar ditugu –esanez amaitu zuen bere azalpena Kurt Wallanderrek–. Ezin ditugu halako gizatxarrak aske utzi.

Isiltasuna egin zen gelan. Rydberg aulkiaren besoa atabalatzen hasi zen. Kanpoko korridorean emakume baten barreak aditu ziren.

Kurt Wallanderrek ingurura begiratu zuen. Denak lankideak zituen. Inor ez zen bere lagun mina. Baina bat eginda zeuden.

–Tira –esan zuen–. Hasi egin behar dugu.
Hamaikak hogeit gutxi ziren.